

# BERRIGARA

88. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1997, azaroak 7

## Andoni Larrañaga

Gipuzkoako Mendi Federazioko presidentea



**KIA** KIA MOTORS

Orain, ARRASATEn duzu Deba Garaiko  
eta Urolako zerbitzu ofiziala



**HONDA**  
AUTOMOBILAK

**M MENDIOLA**

Araba etorbidea, ARRASATE  
Tf. 79 00 11



Orain

Garibai 6ra aldatu gara

Tf. 79 97 86

# UME

ETA ORAIN

JAIO BERRIARENDAKO OSAGARRI GUZTIAK

HAUR ETA GAZTEENDAKO MODA



## Sexu arri

buruzko hitzaldiak

AMAIA VAZQUEZekin

Azaroaren 6an, osteguna  
**Maitasun harremanak**

Komunikazioa, proiektuak, sexualitatea, seme-alabak, berezko guneak.



► Azaroaren 13an, osteguna  
**Sexualitatea, sexu harremanak**

Gozamena, desioa, irudimena, fantasiak.



► Azaroaren 20an, osteguna  
**Gure bizitza pertsonalean agertzen diren zenbait arazo eta krisialdi**

Menopausia, andropausia, banatzeak, heriotzak...

Hitzaldi denak arratsaldeko 7etan izango dira Kultur etxean

Antolatzailea: Jardun



Laguntzaileak:  
Beragarko Udala eta  
Gipuzkoako Foru Aldundia

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
Tel: 76 03 97  
Faxa: 76 29 77

**Argitaratzailea:**

ERROTALDE JAUREGIA

**Zuzendaria:**

Angel Azkarate

**Arredakzioa:**

Angel Mendibil

Angel Elkoroberezibar

**Maketazioa:**

Angel Iturbe

**Publizitatea:**

Marina Romero

**Argipidetza:**

Marika Elortza

**Bestuen zuzenketak:**

Marika Plazaola

Marika Laskurain

Marika Labaien

**Arredakzio kontseilua:**

Marika Elortza

Angel Mendibil

Marika Labaien

**Idazleak:**

Marika Rodriguez

Marika Ortega & Jon Alvarez

Marika Ugalde

Marika Azkarate

**Idazketak:**

Marika Angorri taldea

**Idazleak:**

Marika aile

**Argimategia:**

Marika Koop. Elk. (Zubillaga. Oriñi)

**Copyright:**

BERRIGARA

**Argiteko gordailua:**

76 29 91

**ISSN:**

76-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legebiltzararen Kulturako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Legebiltzararen Kulturako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?


## ALFONSO ALONSO

## Udaltzainburua

- Herriko seinalizazio guztia aldatzeko proiektua noiz gauzatuko da?

- Proiektua adjudikatuzeko oinarriak prestatuta daude dagoeneko eta ziurrenik datorren urtean hasiko gara lan horrekin. Proiektua hiru urtean zehar gauzatuko da eta herri barruan dauden trafiko seinaleak berritzeaz gain, inguruko herrietarako norabideak seinalizatuko dira, herriko monumentu guztietan panelak jarriko dira eta, azkenik, auzo guztietan, sarrerak eta irteerak markatuko dira, baserrietako pistak ere eskematxo batekin azalduz. Aspaldiko proiektua da seinale gehienak nahiko egoera kaskarrean daudelako.

- Proiektuak zenba-



teko aurrekontua izango du?

- Ez dakigu oraindik. Esan bezala, seinaleak aldatzeko proiektua 1998 eta 2001 urte bitartean egingo da eta lan horrek izango duen kostoaren estimazioa eskatu diogu etxe bati, urteroko aurrekontuetan partida bat horretara bideratzeko. Proiektu osoa Udalaren kargu joango da.

**“Herriko seinalizazio guztia aldatzeko proiektua hiru urtean zehar gauzatuko da”**

## I T U R R I O N E T I K

## Udaberri aldera Santa Marinako erretaula fumigatuko da

Santa Marinako kanpandorrearen berritze lanak amaitu ondoren, udaberri aldera erretaula xilofagoen erasoaren kontra fumigatuko da. Kanpandorrearen berritze lanak aurreko astean amaitu zituen Donostiako Guires enpresak. Erosioak eragindako kalteak konpondu dira kanpandorrean eta lanek 26 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan dute. Erretaularen fumigazioa proiektu honen barruan kokatzen da. Parrokiak Diputazioaren laguntzaren zati bat jaso du honez gero eta orain Gotzaitegia eta Bergarako Udalaren laguntzen zai dago. Era berean, hileroko bigarren domekan lanak ordaintzeko diru eskaera egiten da Santa Marinan.

E S A N  
D U T E

“Orain monitore lanetan ari naiz, 20 bat gazte dauzkat nire ardurapean, denak mutilak eta kategoria ezberdinetakoak. Ez dago neskarik. Uste dut beldurtu egiten direla edo ez dakit. Benetan kirol polita iruditzen zait pilota eta ez dut ententitzen zelan neskak ez diren zaletzen. Denetik dago entrenatzen ditudan mutilen artean eta beti daukagu ilusioa baten batek dexente egingo ote duen edo. Ideia horrekin jarraitzen dugu”

**REYES AZKOITIA**  
Pilotazalea  
EUSKADI IRRATIA

“Futbol Liga Profesionaleko Fundazioaren lehiaketako epaimahaia arte kritikoz osatuta zegoen eta, beraz, lehen saria jasotzeko prestijio bat ematen du. Futbolaren inguruko inertiak erakarrira joaten naiz noizean behin futbolera, baina ez dut sufritzen nire lagunek beste”

**MANU MUNIATEGI**  
Pintorea  
EL DIARIO VASCO

**MARTIN (HACHE)**

Eguakitza: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena: 19:30.  
Martitzena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**LA DAMA Y EL VAGABUNDO**

Domeka: 11:30.

**LA HABITACION DE MARVIN**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

**Zinea**

▼▼ **Adolfo Aristarain** zinegile argentinarren azken filmea Urrezko Kontxa eskuratzeko kiniela guztietan zegoen, baina azkenean **Claude Chabrolen** filmea saritu zuten Donostian. Madrilen bizi den **Martin Echenique** zine zuzendaria (**Federico Luppi**) Buenos Airesera bueltatu beharko da bost urtean ikusi ez duen **Martin** bere semeak (**Juan Diego Botto**) istripu larri bat izan ondoren...

▼▼ **Walt Disneyren** klasikoetako bat domekako matinalerako. Familia dirudun batean hazitako arrazako txakurkume batek kaleko txakur bihurri bat ezagutuko du eta beraren eskutik amodioa, abentura edota dibertsioa zer den jakingo du. Cinemascope formatoan egindako lehendabiziko marrazki bizidunetako filmea.

▼▼ **Jerry Zaks** zuzendariaren filme hau aurtengo Berlingo Zine Jaialdian aurkeztu zen. Familiaren arteko harremanak lantzen diren drama honetan **Meryl Streep**, **Robert De Niro**, **Leonardo DiCaprio** eta **Diane Keaton** dira erreperto buru. Azken honek, oskarretan, aktorea onenaren izendapena jaso zuen.

**Deiak**

▼ **1925**ean jaiotakoen (46ko kintoak) bazkaria azaroaren 15ean Antxonin. Izen-ematea bertan.

▼ **1951**n jaiotakoen afaria Antxonin hilaren 15ean.

▼ **1970**ean jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen bazkaria hilaren 29an. Izen-ematea Kortazarren.

▼ **1944**an jaiotakoen afaria hilaren 29an Azpeitxi jatetxean. Aurretik, zazpietan, meza Santa Marian. Izen-ematea: 76 42 08 (Aran-txa Alberdi).

▼ **Mal de ojo** taldea gaur, ostirala, gauean Pol-Polen.

▼ **Joxean Bilbao**ren oleo erakusketa Andoaingo Ayerbe aretoan abenduaren 1era arte.

**Ogia**

▼ **Domeka 9:** Mizpildi.

**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 7:** Mozos.
- ▼ **Zapatua 8:** Camacho.
- ▼ **Domeka 9:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 10:** Puy.
- ▼ **Martitzena 11:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 12:** Estella.
- ▼ **Eguena 13:** Mozos.

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

# Iñaki Salvador

## “Zilbor Hestea” taldearekin bihar Novedadesen

**Iñaki** Salvadorrek eta “Zilbor Hestea” taldeak kontzertua eskeiniko dute bihar, zapatua, gaueko 10:30etatik aurrera Novedades aretoan. Iñaki Salvadorren taldeak “Bi taupada” izenburuko lana aurkeztuko du bihar Bergaran, Udazken Kulturalaren programazioaren barruan. Iñaki Salvador pianujole eta konpositore donostiarrak dantza, antzerkia, zinea edota telebistarako musika lanak egin ditu eta 50 bat diskotan parte hartu du, musika estilo ezberdinak jorratuz. Jazz talde propioak sortzeaz gain, beste hainbat musiko lagundu ditu azken urteotan, tartean Jean Touissant, Pedro Iturralde, Louis Stewart, Allan Skidmore eta Bill Saxton.

Orain, “Zilbor Hestea” izenpean, beren diskoak eginak dituzten musikari bikainak bildu ditu. Honaiko hauek dira “Zilbor Hestea” taldeko partaideak: Amaia Zubiria (ahotsa), Gonzalo Tejada (kontrabajoa), Victor Celada (bateria), Luis Camino (perkusioa), Angel Unzu (kitarra), Josetxo Silgueiro (saxoa) eta Jesus Artze eta Kirikoketa taldea



Iñaki Salvador pianujoleak musika estilo ezberdinak jorratu ditu.

(txalapartarekin). Salvadorren hitzetan, “*jendebau nabastea premeditatu izan da, nabasketa mestizo bat osatzen dugu,*

*bizitzaz, politikaz edo nabi duzunaz oso ikuspegi ezberdinak ditugunak. Nabasketa hori eskizofrenikoa barik, aberasgarria*

*izan dadin saiatu naiz. Eta guztien artean energia musikala (eta ez musikala ere bai) sortzen zela ikustea oso pozgarria izan da”.*

### Jazz-folka

“Bi taupada” izenburuko diskoa izan da lan horren emaitza eta bertan jazz eta euskal folka nahasten dira. Pianujole donostiarrak esaten duenez, “*ohiko produkzioen aldean oso denbora laburrean grabatutako lana da, %90ean zuzenean grabatuta dago. Erabat zuzenean grabatutako diskoa da, nabiz eta lotsagatik edo ez dugun diskoaren azalean jarri. Musiko guztiok elkarrekin batera jotzen genuen, eta bertsoak goitik behera osorik egiten ziren: ongi bazegoen, ongi, eta zerbait aldatzekotan, osorik dena berriro egitera”.*

Biharko emanaldian ere diskoak lan guztiak zuzen-zuzenean entzuteko aukera izango da. Sarrerak 800 eta 500 pezetan (Gazte Txartela edota langabetu txartela dutenentzat) salduko dira Novedadeseko takilan.

**GURIA**

**Taberna**

Bidekurutzeta, 5

☎ 76 20 34

**MUJIK** **UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE**  
**FERRETERIA**

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

**Eskerrik asko guztioi emandako laguntzagatik**

Antzuola eta Bergarako jubilatuen elkarteetako zuzendaritza batzordeek eskerrik eman nahi dizkiete Jubilatuen Lehen Kultur Hamabostaldia antolatu eta aurrera ateratzeko laguntza eman diguten guztiei.

“Erretiratu izatetik presente egotera” lemapean egin den kultur hamabostaldia oso esperientzia positibo eta motibagarria izan da. Herriari zuzendutako era guztietako ekitaldiak antolatu ditugu hamabostaldian, besteak beste, gaur egungo gizartearen jubilatuek betetzen duten papera buruzko hitzaldia, Antzuola eta Bergarako ermiten historiari buruzko hitzaldia, herriko hainbat erakunde eta talderen ordezkariekin egindako mahaingua, aisialdi eta kultur arloko iharduerak eta herri bazkaria.

Asko dira hamabostaldia aurrera ateratzen lagundu digutenak eta honako hauei guztiei eskerrik eman nahi dizkiegu:

- Antolatutako ekitaldietan parte hartu dutenei. Asko izan dira eta euren presentziak animatu eta motibatu egin gaitu.

- Mahai inguruan parte hartu dutenei. Lan interesgarri eta aberasgarria egin dute eta bide berriak jorratzeko pistak eman dizkigute.

- Hamabostaldiaren hasiera eta amaiera ekitaldietan parte hartu duten Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak. Euren presentziak etorkizunean ildo beretik lanean jarraitzeko animatu gaitu.

- Komunikabide idatziei, bereziki Berrigara astekariari, hamabostia gertutik jarraitu dutelako.

- Irratiei, hamabostaldiari buruzko informazio zehatza emateaz gain, hainbat elkarrizketa egin dizkigutelako.

Bestalde, jarraian aipatzen ditugun erakundeei ere eskerrik eman nahi dizkiegu emandako laguntza ederragatik: Industrias Ibili, Industrias Lacor, Biltoki, Herriaren Etxea, Euskadiko Kutxa, Kutxa, BBV, Bankinter, Banco Central, Banco Guipuzcoano, La Caixa, Banco Santander eta Banco Vitoria.

Erakunde hauek guztiak emandako opariak, hamabostaldiari amaiera emateko antolatu genuen herri bazkarian zozketatu genituen. Herri bazkarian 180ren bat lagunek hartu zuten parte eta berrogei opari banatu ziren.

Herriko arlo desberdinetan lanean dihardutenengandik horrelako erantzuna jasotzeko izanik poz handia eman digu eta hamabostaldia hasi zenean izan genituen beldurrak uxatu ditu. Beste behin gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu guztiei.

ANTZUOLA ETA BERGARAKO JUBILATUEN ELKARTEETAKO ZUZENDARITZA BATZORDEAK

**Fax zenbaki berria**

BERRIGARA eta JARDUNeko fax zenbakia aldatu egin dugu. Mezu, ohar, idatzi eta abarrak faxez gurera bidali nahi izanez gero,

**76 29 77**

zenbakia markatu beharko duzu aurrerantzean. Barkatu eragozpenak.

**Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ**



# Aste kulturala Mizpirualden astelehenetik aurrera

## Ihardunaldi pedagogikoak San Martin Agirre Herri Eskolan

San Martin Agirre Herri Eskolako Biltzar Nagusiak ihardunaldi pedagogikoak antolatu ditu. Hurrengo eguenean Alberto Iturbe medikuak hitzaldi bat emango du eta gaia "Elikaduraren garrantzia garapenean. Irtenbide praktikoak" izango da. Hitzaldira herritar guztiak daude gonbidaturik eta arratsaldeko 18:30etan izango da eskolan bertan.

## Zapatu goizean igerilekuak itxita egongo dira

Bihar, hilak 8, itxita egongo dira piszinak 08:00etatik 13:00era, kirol lehiaketa bat jokatu delako.

### HILDAKOAK

- Juan Larrañaga Badiola  
Urriak 30, 76 urte.
- Rosario Irizar Gallastegi  
Urriak 30, 61 urte.
- Ramon Iraegi Eguren  
Urriak 1, 57 urte.
- Julio Larrañaga Orozko  
Urriak 3, 74 urte.
- Efextin Martin Jimenez  
Urriak 3, 60 urte.

### JAIOTAKOAK

- Andoni Moñux Ugalde  
Azaroak 2

**Mizpirualde** egoitzak hainbat ekitaldi kultural antolatu ditu datorren astelehenetik igandera bitartean. Urtero egoitzaren astea antolatzen dute eta Alazne Irazabal egoitzako gizarte laguntzaileak adierazi digunez, "egoitzaren atera berriko hainbat talde gonbidatu ditugu, Mizpirualde egoitza herrian integratzeko. Horretaz gain, egoitzan daudenen arteko barremanak sendotu nahi ditugu eta giroa ere sortu nahi dugu".

Mizpirualden Bergara, Antzuola eta Elgetako 109 lagun inguru daude eta askotan bakardadea da euren etsai nagusia. Horregatik, antolatu duten astea bergarar guztientzat dago zabalik. "Komenigarria izango litzateke jendea etortzea, ez bakarrik astean zehar, urte osoan baizik. Egoitzako ateak zabalik daude edonorentzat eta bertan bizi direnek gustora hartzen dituzte bisitak" esan digu Irazabalek.

## Taun-Taun, Oihulari Klown...

Mizpirualdeko aste kulturalaren programari dagokionez, ekitaldiak



Eguastenean Oihulari Klown taldea izango da Mizpirualden.

astelehenean hasiko dira arratsaldeko 17:30etan Taun-Taun taldeak eskeinitiko duen "Bi kate" antzezlanarekin. Ondoren, Musika Eskolako trikiti taldearen emanaldia izango da.

Martitzenean, arratsaldeko 16:30etan, txokolata eta Moises Aspiazu dantza taldearen emanaldia izango dira. Ondoren, Musika Eskolako txistu taldearen ekitaldia entzun ahal izango da. Eguastenean, 17:30etan, Oihulari Klownek "Clownferencia" emanaldia eskeinitiko du. Eguenean, berriz, 17:30etan bingoa jokatu da eta ondoren Musika Eskolako metal taldeak

kontzertua eskeinitiko du. Eguakitzean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera, briska, puntxo, domino eta igel jokoa izango dira. Ondoren, Iberdrolak babestutako Argia zortzikotearen emanaldia izango da.

Zapaturako, arratsaldeko 17:30etan, Extremadurako kultur zentroaren ikuskizuna dago iragarrita eta asteari bukaera emateko domekan, goizeko 11:45etan, eukaristia izango da. Ondoren, 13:00etan, bazkaria eta sari banaketa egingo dira. Bazkal ostean dantzaldia izango da eta asteari bukaera emateko Xamatx dantza taldearen emankizuna izango da.

# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE TI. 79 27 27 / 79 13 55



### Bedelkarrek Opel Corsa bat zozketatuko du

Bedelkarrek, Bergarako dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak, Opel Corsa bat zozketatuko du Errege bezperako Niñoko loteriarekin batera. Bedelkarreko dendetan erosketak egiten dituztenen artean txartelak banatuko dira.

### “San Martinen Estanpa” bideoa salgai


Etxepare liburu eta disko dendan, Lazkano oinetako dendan eta Musika Eskolan erosi daiteke 2.000 PTaren truke San Martinen Estanpa ikuskizunean hartutako irudiekin egindako bideoa.

### Bideo ikastaroa abenduan

Islada bideo tailerrak bideo ikastaroa iragarri du abendurako. Hilaren 1etik 18ra arte egunero lau ordu emango dira, 17:00etatik 21:00ak arte. Video machine bideo-estudioaren erabilera eta muntaiaren oinarriko kontzeptuak erakutsiko dira. Matrikula 15.000 PTA kostatzen da. Informazio gehiago Kultur Etxean edo 77 91 58 telefonoan.

### Amnistiaren Aldeko Batzordeen zozketa

Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatutako autokarabanaren zozketa 133.293 zenbakiak irabazi du. Azaroaren 28rako zenbaki horren jabea agertuko ez balitz, 19.293arentzat izango da saria. Azken honek abenduaren 30erarte izango du saria jasotzeko epea. Amnistiaren Aldeko Batzordeek zozketatutako gainontzeko sariak jasotzeko azken eguna azaroaren 28a da.



Pilotalekua estali, kantxa eta frontisa konpondu eta aldagelak eta gradak egingo dira.

## Angiozarko pilotalekua berrizteko lanak laister hasiko dira

*Proiektuak 60 milioi pezetako aurrekontua du*

Begarako Udala eta Angiozarko pilotalekuaren lurjabeak akordio batera heldu dira. Lurren jabeek, Otsoa de Angiozar familiakoak, Angiozarko pilotalekuan dituzten lur sailak, 85 metro karratu inguru, Udalari emango dizkiote. Izan ere, Angiozarko pilotalekua berrizteko eta egokitzeko orain dela urtebe inguru onartutako proiektua garatzeko oztopo bat zegoen, lur eremuaren jabetza hain zuzen. Frontoiko proiektua aurrera eramateko orduan udal agintariak lur horien jabetza esku pribatuetan zegoela konturatu ziren. Ondorioz, obra horiekin hasi aurretik jabetzaren auzia konpondu behar izan dute.

Victoriano Gallastegi alkateak adierazi digunez, Otsoa de Angiozar familiakoekin lurra Udalaren

esku lagatzeko akordioa lortu dute. *“Orain bakarrik akordioa firmatzea falta da. Behin hori egin ondoren obren adjudikazioa egingo dugu. Aurtengo aurrekontuan 20 milioi pezetako partida bat dago pilotalekuko obrak egiteko eta urtea bukatu baino lehen obrak adjudikatzeko asmoa daukagu”* adierazi digu alkateak.

Diru kopuru horrekin proiektuaren lehenengo faseari ekingo diote eta datorren urtean gauzatuko da proiektuaren bigarren fasea. Aurtengoa egin nahi dituzten obrek pilotalekua estali eta kantxa eta frontisa konponduko dituzte. Bigarren fasean, berriz, gradak eta aldagelak egingo dituzte. Guztira 60 milioi pezetako aurrekontua du Angiozarko frontoia konpontzeko proiektuak.

*Kizkur*

**ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

**BEHEKO  
TABERNA**

**Menestra eta konejoo  
dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

*Paper pintatuak - Pinturak*

**A. ZANGITU**

ORDUTEGI BERRIA:  
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE



## UNED: ikasturteari hasiera eman zion Kultura diputatuak ostiralean

Madriilen UNED sortu zela 25 urte betetzen direla ospatzeko eta Bergarako UNEDen ikasturte berriari hasiera emateko hainbat ekitaldi izan ziren joan zen eguakitzean bertako aretoan.

Koruko Aizarna Kultura diputatua, Luis Mari Bandres Gizartekintzakoak, Miguel Angel Priego UNEDeko erretore orde nagusia, Juan Jose Alvarez Bergarako zentruko zuzendaria eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren bertan. Ikasturteari hasiera emateko, Luis Mari Bandresek sarrerako ikasgaia eman zuen. Bergarako UNEDeko zuzendari izandakoak Erret Mintegiak

historian zehar izan duen garapenari buruz egin zuen berba. Era berean, Victoriano Gallastegi alkateak Bergarako Udalaren izenean Seminarioaren fatxadan oinarritutako eskultura bat oparitu zion Miguel Angel Priegori. Koruko Aizarnak, azkenik, hasiera eman zion ikasturteari. Ekitaldian Umore Ona abesbatzak eta Wonder Brass Quintet musika taldeak ere parte hartu zuten.

Bestalde, HBko jarraitzaileek enkartelada egin zuten San Martin plazan, ekitaldia eta UNEDeko eskara departamenduaren desagerpenaren aurka protestatzeko.



## Abiadura murrizteko bandak jarriko dira

Udaletxe atzealdeko kamino-ko harria egoera kaskarrean dagoela ikusirik, kotxeen abiadura murrizteko bandak jartzea erabaki du udalak. Udaletxearen birgaitze lanekin batera, San Pedro elizaren aurrean eta udaletxe osteko bidean harri berezia jarri zuten. Halere, kotxeen abiaduragatik harriak mugitu egin dira lekuz. Ibilgailuak toki horretan polikiago ibili daitezten errepidean banda batzuk jarriko dituzte; ondoren, mugituta dauden harriak konponduko dituzte.



## Eskulan ikastaroak Gartzela Zaharrean

Jardunek eskulan ikastaroa antolatuko du datorren astelehenetik maiatzaren 28ra bitartean. Astelehen eta eguastenetan emango da 15:30etatik 17:00etara Gartzela Zaharrean. Prezioa: 7.000 PTA Jarduneko bazkide ez direnentzat eta 6.500 PTA bazkideentzat. Izen-ematea Jardun elkartearen edo 76 08 19 eta 76 36 61 telefonoetan lehen bait lehen.

## Jubilatuak Lizarrara

San Joxepe jubilatuen elkarteak Lizarra ezagutzeko irteera antolatu du hurrengo azaroaren 30erako. Irteera goizeko 09:00etan izango da eta Abarzuzan hamarretakoa egingo dute. Ondoren, Lizarrako feria bisitatu eta herri horretako kampingean bazkaria egingo dute. Irteera 2.300 PTA kostatzen da eta izena Bergarako Gizarte Zentruan eman beharko da.

## Orfeoia argazki bila

Bergarako Orfeoia 75. urteurrena ospatzeko argazki erakusketa bat antolatu nahi du. Erakusketan Orfeoia historian ateratako edozein argazki jarri nahi dute. Norbaitek argazkiren bat baldin badu, martitzen eta eguenean gaueko 21:00etan Orfeoia Zabalotegiko aretoan egiten dituen entsaiuetara eroan dezake.

## Jose Mari Etxanizen aldeko plataforma

Jose Mari Etxaniz otsailean 18 urte kartzelaturik beteko dituen preso bergararraren askatasuna eskatzeko plataforma bat eratu nahi du bergarar talde batek. Izan ere, Etxanizek bere askatasuna eskatzeko errekurso bat jarri du Audientzia Nacionalean. Erakunde horrek bere alde egiten badu kalera irtengo da. Plataformaren helburua errekurtsua azeleratzeko ekitaldiak antolatzea izango da. Plataforman parte hartzeko Pol-Pol, Arrano eta Kortazar tabernetan eman beharko da izena eta edozein bergararentzat zabalik dago.



Komite Internazionalistak taldeak Mexikoko sei komunitatera ura erroteko proiektua aurkeztu zuen Udaletxean.

# Garapen bidean

## Hirugarren mundurako dirulaguntzak

**Bergarako Udalak gobernuz kanpoko erakundeen artean banatzeko aurreikusita daukan dirua FISC, Komite Internazionalistak eta Oscar Romero taldeek Perun, Mexikon eta El Salvadorren garatuko dituzten proiektuetara bideratu-**

**ko da aurten. Era berean, hirugarren munduarekiko herrian egingo diren sentsibilizazio kanpainak ere laguntzak jasoko dituzte. Gaur egun udal aurrekontuen %0,6 zuzentzen da herrialde behartsuenei laguntzeko.**

**U**daleko Osasun, Enplegu eta Gizarte arazoetako batzordearen proposamenari jarraituz, udalak gobernuz kanpoko erakundeek emango dien dirua horrela banatuko da: FISC erakundeak 1.518.750 pezeta jasoko

ditu; Komite Internazionalistak taldeari 1.348.650 pezeta emango zaizkio eta El Salvadorren lanean ari den Oscar Romero taldeak 1.182.600 pezetako dirulaguntza izango du. Bestalde, gure herrian sentsibilizazio kanpainak egiteko, Ko-

mite Internazionalistak (225.000 pezeta), Emaus fundazioa (112.500 pezeta) eta Mugen Gaietarik (112.500) taldeek ere laguntzak jasoko dituzte.

Udaleko Ongizate Zerbitzuak eman dizkigun datuen arabera, aurten 20 taldek aurkeztu dute dirulaguntza jasotzeko eskaera (sentsibilizazio kanpainen kasuan aurkeztutako hirurak onartu dira). Dirulaguntza jaso nahi duten taldeei beharrezko instantzia bete eta taldearen estatutuak aurkeztea eskatzen die Udalak. Talde bakoitzaren dokumentazioa aztertu eta taldeetako ordezkariekin elkarrizketatu ondoren, alderdi politikoe-tako ordezkariak eta Ongizate Zerbitzuko teknikoe-k osatutako batzordeak dirulaguntzak jasoko dituzten taldeak zeintzuk izango diren erabakitzen du. Esan bezala, aurten udal aurrekontuen %0,6

## Aurten udal aurrekontuaren %0,6 bideratuko da gobernuz kanpoko erakundeek hirugarren munduan egiten duten lanetarako

bideratuko da laguntza hauetara eta datorren urteko aurrekontuan %0,7 emango dela aurreikusten da.

### Nekazal guneak

FISC (Fundacion Internacional de Solidaridad) erakundeak aurten jasoko duen dirulaguntza Peruko Chepen izeneko distriton komedore bat konpondu eta beste komedore berri bat eraikitzeko erabiliko da. Era berean, komedorea hornituko duen ortua ere martxan jartzeko asmoa dago. FIS-Ceko kidea den Jose Angel Mikeok azaltzen digunez, "60.000 biztanle inguruko distrito haundi bat da Chepen, Peruko

kostaldean dagoena. Ber-gararik lagundu nahi den proiektuaren lehen urratsak emanak dira dagoeneko eta laster batean ortua eta komedore berria eraikitzeari ekingo diote. Jasotako laguntza nabikoa izango da Udalari planteatu genion lanerako. Komedoreak ego-kitzeaz gain, ortuan lanean hasi abal izateko ura eroan behar da bertara eta nekazal tresneria ere lortu behar da. Chepen distritoa nekazal gunea da eta laguntza hau oso ondo etorriko zaie". FISC erakundeak Udalaren laguntzaz gauzatzen duen hirugarren proiektua da honako hau. Aurretik Nikaraguan bi urtean zehar etxe ko-

munitario bat eta eskola bat eraiki ziren. Beti ere jarraipena zuzenean egiten da; "taldean 12 bat lagun izango gara orain eta gehienok 3. munduan udako lan taldeetan egondakoak gara. Eskola mailan ere bainbat ekintza egin izan ditugu Albania, Zaire eta beste bainbat lurraldetara laguntza bidaltzeko" diosku Mikeok.

Aurrekontuen %0,7 garapen bidean dauden herrialdeei laguntza bidaltzeko martxan jarritako herri ekimenen aurrean baikor azaltzen da; "gure helburua kopuru hori lortzea da eta orain 3 bat urte kanpaina horiek martxan jarri zirenetik igartzen da poliki-poliki gauzak lortzen doazela. Hori lortutakoan polita litzateke kopuru hori gainditzea ere".

### El Salvadorren

Mila Andueza Oscar Romero, El Salvadorren 1980ko hamarkadaren hasieran hil zuten Romero monsinorearen oroimenez sortutako taldeko kidea da. Milaren hitzetan, "Gipuzkoa mailan 86an sortu zen kristau taldea da gurea eta Ertamerikan (Honduras, Nikaragua edota El Salvadorren bertan) hainbat proiektu egin ditugu honenez gero: komunitate batera ura eroan, bango nekazariei tresneria erosi eta kooperatiben moduko dendak jarri abal izateko kreditoak eman (ezin dute banketxeetara jo in-



Oscar Romero kristau taldeak hainbat proiektu burutu ditu Ertamerikan.



Argazkian, 1996ko udan Mexikon lanean izan zen Komiteetako brigadista talde bat.

teresak oso altu kobratzen dizkietelako), emakumeei zuzendutako korte eta konfekzio tailerrek ere bai... Azken batean garatu nahi dituzten proiektuak handik bidualtzen dizkigute eta gu, berriz, inguruko udal-txeetan laguntzak jasotzen abalegintzen gara". Antzuola eta Bergarako udalen laguntza jaso izan du Oscar Romero taldeak. "El Mango izeneko komunitatean bertako emakumeak josten ikasteko tailer bat jarri nahi da martxan eta egindako azterketen arabera emakume asko daude interesatuta tailer honetan parte hartzearekin. Behin proiektuak martxan jarritz gero, jarraipena egiten da eta, beti ere, konfidantzazko pertsonekin lanean ari gara. Proiektua argi eta garbi azaltzen diegu udalei eta fakturak ere aurkeztu beharra daukagu. Dirulaguntzei dagokienez, urtetik urtera gauzak lortzen dira eta hori baloratzekoa da". Mila El Sal-

vadorren egondakoa da eta laguntza hau aurrera egiteko ezinbestekoa zaiela adierazi digu.

**Kontzientziaioa**

Bestalde, Komite Internazionalistak-ek Mexikoko sei komunitatera ura eroateko proiektua aurkeztu zuen Udaletxean. Lan hori Veracruz izeneko estatuan, Orizabal bailaran hain zuzen ere, egiten ari da eta 30.000 lagun inguru izango dira onuradunak. Proiektuak zazpi milioi pezeta inguruko aurrekontua dauka eta Bergarako udalaz gain, Arrasatekoak ere 1.170.000 pezetako laguntza eskeini die. Markos Gabilondo eta Mariasun Mujika Komiteetako kideak ditugu. Markosen esanetan, "orain pare bat urte izan ginen ban eta beraiek landutako proiektu hau aurrera eramatea planteatu zigiten. Azken batean, beraien beharrak eta komunitaterako benetako interesa daukan hartzen

da kontutan proiektu hau edo bestea bultzatzeko orduan. Diru sarrera inportanteenak egurretik (badituzte zerrategi ba-

tzuk) eta ortutik ere lortzen dituzte eta oso leku pobreak dira. Lurrak baliogutxi duen tokietan bizi dira, latifundistei interesatzen ez zaizkien lurretan batik bat, eta lehen ura bazeukaten ere, poliki-poliki beste lurralde pobrego batzuetara baztertu dituzte bango nezakariak".

Komiteek urteak daromatxate lanean Nikaraguan, Kuban edota Guatemalan. Markosen arabera, "Chiapaseko egoera mundu zabalean ezagutzera eman zenean, jende asko ohartu zen Mexiko ez zela uste bezain aberatsa eta bertako demokraziak ere butsunek zituela. Lan asko dago egiteko han eta laguntza beharra duten beste herrialde batzuekin ere kontaktuan egoten saiatzen gara. Tokian tokiko



Peruko Chepen nekazal distrituan bi komedore egokituko dira.



## Aurrekontuen %0,7 lortzeko bidean

**G**ipuzkoan badira %0,7aren aldeko batzordeak Donostian eta

Iruren. Talde hauek gure probintziak solidaritate kanpainen aurrean zer nolako erantzuna eman duen aztertu izan dute elkarrekin. Euren txostenean jasotzen denez, 1994an Ruandan izandako gerrate zibilak eta, Estatuko aurrekontu orokorren eztabaidaren inguruan, %0,7 garapen kolaboraziorako bideratzea aldarrikatu zuten taldeek erabateko garrantzia izan zuten herritarren solidaritate kontzientzia pizteko. Azterketarako 5.000 biztanletik gorako Gipuzkoako 26 herri (tartean Bergara) aukeratu dituzte eta ondorioetako batzuk hauek liriateke: kasu gehienetan (%60) udaletako ongizate zerbitzuak dira dirulaguntza hauen ardura dutenak eta askotan (%55) ez dago

irizpide finkorik dirulaguntzak banatzeko orduan; bestalde, euren aurrekontuko zati bat garapen kolaborazio proiektuetara bideratzen duten udalen kopurua asko ugaltu da azken urteotan (92an 13 ziren laguntzak ematen zituzten udalak eta 95eko ikerketan aztertutako 26 udaletatik bakarra da dirurik ematen ez duena). Kasu gehienetan ere herri bakoitzean lanean ari diren gobernu kanpoko erakundeen bitartez bideratzen da laguntza. 1995eko datuen arabera, Legazpi eta Ordizia ziren %0,7 ematen zuten udal bakarrak. Bergarako Udala dirulaguntzak haunditzen joan da urtetik urtera; 1992tik 1994ra ez zen dirulaguntzarik aurreikusten; 95ean %0,2; 96 %0,25 eta aurten %0,6. Datorren urtean hainbat kolektibok eskatutako %0,7aren gutxieneko horretara iritsiko da.



*beharren arabera sortzen dira gero proiektuak". Hala ere, Mariasunek azaltzen digunez, horrelako solidaritate proiektuak baino Komiteen benetako zeregina kontzientziazioarena da; "helburu nagusia bemengo jendeak bango arazoan gainean kontzientzia hartzea litzateke, benetan ohartzeko zelako ezberdintasunak eta injustiziak ematen diren. Horregatik, noizean behin lanean izandako brigadistekin eta hitzaldiak, bideo emanaldiak eta borrelakoak antola-*

*tzen ditugu eta, egia esan, azkenaldian oso erantzun ona jaso dugu. Adin guztietako jendea etortzen da eta saiatzen gara nobedadeak izan dituzten herrialdeen gainean egoten. Orain, adibidez, Kurdistan guztion abotan dago eta badugu bango egoerari buruzko hitzaldi bat antolatzeko asmoa..."*

Herritarren kontzientziazioa lortzeko, Komite Internazionalistak-ekin batera, Emaus eta Mugen Gaienetik taldeek sentsibilizazio kanpainak antolatzeko laguntzak izango dituzte.



Chepen-go biztanleei oso ondo etorriko zaie laguntza.

### IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



### Aldoka Maldoka TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

# Juan Jose Alvarez

## UNEDeko zuzendaria

**Eguakitzean 1997-98 ikasturtearen hasiera ekitaldia izan zen UNEDen. Aurtengo ikasturtean 1.500 ikasle inguru matrikulatu dira eta Juan Jose Alvarez bertako zuzendariak ikasleen pareko kemena azaltzen du kurtso berriaren atarian.**

**- Urtebete daramazu zuzendari karguan. Zein balorazio egingo zenuke?**

- Pertsonalki oso gustora ari naiz lanean eta hori beste hainbat esparrutan lan egiteko oinarria da. Zentruari dago-kionez, normalitate giro bat izatea lortu dugu, aurretik izandako tentsioak gaindituz. Unibertsitateko irakasle bat zuzendari posturako aukeratzean, zentroa gidatzen duen patronatoak etapa berri bati hasiera eman nahi izan zion eta, oraingoz, lan egiteko askatasun osoa izan dut. Ondo konpontzen ari gara.

**- Zeintzuk dira zentruko alderdi positiboak eta negatiboak?**


- Negatiboena, eskeintzen zaigun laguntza eskasa da. Ez da kontutan hartzen ikasle kopuru altuena jasotzen duen unibertsitatea UNED dela eta, beraz, erabat kalte-ituak gara matrikulatutako ikasle bakoitzeko dirulaguntzak jasotzen dituzten

unibertsitateen aurrean. UNED eta Santanderreko Menendez Pelayo unibertsitatea zuzenean Ministeritzaren menpe dauden bakarrak dira. Ministeritzak autonomien esku utzi du konpetentzia unibertsitarioa, baina horrek ez du esan nahi dirulaguntzarik ematen ez duenik. Egoera honetan bere unibertsitateak seme-alaba pobreak dira. Eta UNEDek medioak behar ditu aspektu informatikoan zein mediatikoan aurre-aurrean egoteko.

Eta alderdi positiboan artean ikasleriaren perfila goraipatuko nuke. Ni Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea naiz eta ez dauka zerikusirik UNEDen bizi den giroak hangoarekin. Irakasleak guztiz kontzientziatuta datoz, inor ez dator ostiral arratsaldetan edo zapatutan goizetik irakaslearekin ondo gelditzearren bakarrik, etxean egiten ari diren ikasketa benetan osatzeko interesa daukate. Sortzen den giroa eskerrezkoa da.

**- Zeintzuk dira ikasturte honetako nobedadeak?**

- Bi lizentziatura jarriko dira martxan: Ekono-



Alvarezek urtebete darama UNEDeko zuzendari karguan.

miakoa eta Enpresen Administrazioakoa eta Zuzendaritzakoa. Horrez aparte, bideokonferentzia sistema aipatuko nuke. Sistema honi esker Madrileko egoitza zentrolean edota atzerrian dagoen irakasle batekin konektatu eta konferentzia aktibo batean parte hartzeko aukera izango da. Dena den, metodologia honek ez du ikaslea laguntzeko beharrezkoa den kontaktua zuzena baztertuko.

**- Beharren artean zeintzuk nabarmenduko zenituzke?**

- Niri eskatzea tokatzen zait. Zentroak berrikuntza orokor bat behar du eta badirudi patronatoaren jarrera positiboa dela. Bestalde, Udala, Miguel Altuna Institutua eta gure artean liburutegi amankomun bat jartzeko

proiektua daukagu. Gure oraingo liburutegia kontsultarako gela izango litzateke eta liburu espezifikokoak Miguel Altuna berriko ganbarara eramango genituzke. Udalarentzat ere oso proiektu interesgarria da oraingo liburutegia txikia geratu zaiolako.

**- Badirudi Irunen beste UNED zentro bat zabaltzeko asmoa dagoela. Zelako eragina izango du horrek Bergaran?**

- Gipuzkoan UNEDen presentzia indartzeko positiboa litzateke hori, baina bi baldintza beharrezkoak dira: batetik, Bergarako zentruak UNEDen Gipuzkoako egoitza izaten jarraitzea eta, bestetik, proiektu horren bideragarritasun ekonomikoa alde aurretik frogatzea.

**“Aurten bi lizentziatura berri jarriko dira martxan eta hainbat irakasleren kasuan bideokonferentzia sistema erabiltzen hasiko gara”**

# kontuola...

Antzuolako hamabostekaria. 5 zenbakia, 1997-11-7

## Hamar urtez ejerzitoari lagundu barik

Urriaren 23an epaitu zuten alkatea ejerzitoarekin ez kolaboratzeagatik

1987ko azaroaren 17an onartu zuen udalak ejerzitoekin ez kolaboratzea. Ordutik hona, behin eta berriz jakin arazi diote udalari orduan hartutako erabakia legez kanpoko delatela. Hala ere, Antzuolako udalak bere erabakiarekin aurrera jarraitu du eta bi alkate ere epaitu dituzte desobedientzia delituegatik.

**H** amarkada honetan, intsumisioen aldeko mugimendua erabat gizarteratu da eta Antzuolan ere, zeharo barneratua dago herriko gazteek intsumiso izatea erabakitzea. Horren alde aritu da joandako 8 urteetan Antzuolako Intsumiso Taldea (AIT). Hasierako taldean lau intsumiso baino ez zeuden, baina gaur egun 27 intsumiso daude herrian. Horietako 17 epaitu dituzte dagoeneko eta batzuek gartzela zigorra ere jasan behar izan dute.

Azaroaren 12 eta 13an izango dira berriz ere soldaduzkara joan behar dutenen zozketak. Herriko 20 bat gazte sartuko dira oraingo zozketa honetan.

### Udal intsumisioa

Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzea onartu zuenetik, udal ordezkariak ere epaitu dituzte desobedientziagatik eta ejerzitoari laguntza ukatzeagatik. 1995ean, Roke Iñarra epaitu zuten eta arrazoi horregatik epaitzen zuten lehenengo alkatea izan zen. Urriaren 23an, Mikel Larrea alkatea epaitu berri dute, 1995ean soldaduzkara joan behar zuten gazteen zerrendak ez egiteagatik. Mikeli bi urte eta 5 hilabeteko inhabili-



AITko kideek Intsumiso Egunera joateko ohitura dute

tazioa eta 14 hilabeteko isuna (1.100 PTA. eguneko) eskatu zion fiskalak. Hala ere, Antzuolako udalak ejerzitoekin ez kolaboratzen jarraituko du, orain dela 10 urteko udal plenoan onartu zen moduan.

### Beste epaiketa baten zain

Antzuolako udala EUDIMAKo (Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatea) partaidea da. Luis Navajas fiskalak au-

zitara eraman nahi du EUDIMA, bere ustez, "legez kanpoko elkarte delako, delituzko ekintzak bultzatzeko helburua duena".

Joseba Villarreal EUDIMAKo idazkariak azaldu digunez, "defentsa bateratua egitea erabaki dugu; auziak aurrera egingo balu Euskal Herriko 44 alkatek 2-4 urte arteko gartzela zigorra, 6-12 hilabeteko inhabilitazio berezia eta isunak izango litzukete; hala ere, oraingoz 16 alkatek deklaratu behar dute".

Herriko 27 intsumisoetatik 17 epaitu dituzte eta batzuek gartzela zigorra jasan dute

## Ez laga zure kasa pentsatzeari



**Emilen Castro**

**K**aixo antzuolarrok!

Berri onak gaurkoak! Bai horixe! Atzo hitzaldi batean ("Haur eta gurasoen arteko harremanak") psikologo bati entzundakoarekin esnatu naiz.

Ez, ez pentsa amets txarrak izan ditudanik. Buruan bueltaka zebilkidan ideia hauxe zen: zer gertatuko zen gure bizitzan "espezialista" edo "profesionala" den jendeaz baino gehiago, geure pentsamenduz fidatuko bagina. Ez! Ez dut esan nahi goi mailako ikasketak dituzten pertsonen ez dakitenik. Ezta gutxiago ere! Bakarrik esan nahi dut hauxe: gutxi, oso gutxi dakigula; eta batez ere, psikologiaren munduan. Horregatik... ez laga zeure kabuz pentsatzeari.

Zuretako eta zure egoeran, zuk zeuk daukazu informaziorik hobereena. Beharbada pentsatzeko laguntza beharko duzu, baina gauza zara. Ados! Beste informazio guztiak, printzipioz, onuragarriak izan daitezke. Baina ez bakarrik edo batez ere tituludunek ematen dutena! Herriko auzolagunena, nahiz eta titulurik ez izan, besteena bezain aberasgarria eta inportantea izan daiteke. Eta nire uste apalean, umeen eta gurasoen arteko harremanez, beste edozein pentsamenduz fidatzekotan, umeek maitatzen duten pertsonen fidatuko nintzateke. Eta hauek, askotan, gure ondoan bizi dira!

Horregatik... berri onak gaurkoak!

# Arrola elkartearen 25. urteurrena azaroan



Arrolak Piriniotara egin duen azken irteeran hartutako irudia.

Antzuolako mendizale elkarteak 25 urte bete ditu eta hori ospatzeko, zenbait ekitaldi antolatu dituzte azaroan zehar. Hasteko, Nepalen aurpegi izkurtua erakutsiko dute Amaia Elosegi eta Esther Mugertzak diapositiba bidez, azaroaren 18an, martitzena, 19:30etan zinetokian. Bi egun beranduago, ordu eta leku berean, Batis Goikoetxea eta Migel Angel Otxoaren diapositiba emanaldia eskainiko dute "Hiru haundi mendiko eskian" izenburupean. Ospakizunekin jarraitzeko, bazkaria ere antolatu dute, azaroaren 22rako, zapatua. Bertara joan nahi dutenek aurrez izena eman beharko dute Arrolako lokalean. Egun horretan, "25 urte argazkitan" erakusketa ikusteko aukera egongo da kalean, egun osoan zehar, gero udaletxera eramango baitituzte

argazkiok; hortaz, domekan, azaroak 23, udaletxeko areto nagusian ikusi ahal izango dira.

### Diapositiba ugari

Azaroaren 25ean, "Elurra eta elur jausiak" diapositiba emanaldia egongo da eta eguenean, azaroak 27, Itsasoari begira egoteko aukera izango da. Bi diapositiba emanaldi horiek ere 19:30etan izango dira, zinetokian.

Bestalde, azaroaren 16an, domeka, gaztetxoaren eskolarteko kirol lehia-keitarako baliagarria izango den irteera dago.

Arnora joan nahi dutenek, datorren astelehenean, azaroak 10, Arrolako lokalean eman beharko dute izena, 19:30etatik aurrera.

# LARREA

## TABERNA

Kalebarren, 17  
ANTZUOLA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

# GOROSTI

## Taberna

☎ 76 62 96

Zurrategi plaza ANTZUOLA



# Pilota txapelketako bigarren kanporaketak

Amaitutzat eman dute antolatzaileek herriko pilota txapelketaren lehenengo kanporaketa. 20 bikotek jokatu zuten lehenengo txanda eta horietatik 8 pasa dira bigarren kanporaketara. Hemendik Gabonak arte jokatuko dituzte pilotariek finalera arte gelditzen zaizkien partiduak.

Sailkatzea lortu ez dutenek kontsolazio partiduak jokatzeko aukera izango dute. 11 bikotek parte hartuko dute liga honetan, bi taldetan banatuta.

## 2. KANPORAKETARAKO KLASIFIKATUAK

### 1. TALDEA

Juan Migel Pagaldai-Jose Mari Galeano  
Asier Muruamendiarez- Mikel Larrañaga  
Antxon Biteri- Felix Agirre  
Joseba Azkarate- Aitor Aranguren

### 2. TALDEA

Juan Simon Aristi- Luis Larrea  
Jose Mari Mendizabal- Jose Ramon Jauregi  
Iosu Larrea- Gorka Manso  
Xabier Barkero- Iker Irizar



## 120 kilo kanalean

San Martinetako ferian eskolako haurrek egin zuten zozketako txerria hil egin zuten pasa den astean Iralatorren. Txerria errejimenean egondakoa bazen ere, urdaiazpiko ederrak zituen!

## Argazki ikastaroa

Benito Canterok eskainiko du Kultura eta Kirola Batzordeak antolatutako ikastaroa. Azaroaren 15, 22 eta 29an izango da, 09:00etatik 13:00etara. Argazki kamara ezagutu eta hobeto erabiltzea da ikastaroaren helburua, eta horretarako diafragma, obturadorea, flasha, filtroak eta beste hainbat gai landuko dira. Izena emateko epea azaroaren 12rarte, udaletxean. Matrikula 2.000 PTAKoa izango da eta liburuska praktiko bat emango zaie ikastaroan parte hartzen dutenei.

## Jatetxe gida

Debagune, Deba Garaiko euskara taldeen elkarteak, atera berri duen gida aurkeztu zen Arrasaten urriaren 29an. Gidan, Deba Garaiko 100 jatetxe daude eta guztien izenak eta helbideez gain, bakoitzaren berezitasuna eta errezeta bana ere jasotzen dira. Antzuolako bost jatetxe agertzen dira. 500 PTAn salduko ditu Idolazek.

## Mus txapelketa

Lau bikote joango dira azaroaren 16an Eginen antolatutako Mus Txapelketaren eskualdeko finala jokatzera. Joan zen astean, Isidoro Quintana eta Florentino Larrañagak irabazi zuten Olalden jokaturako finala. Horiekin batera, Xanti eta Pollero, Anselmo eta Patxi eta Begoña eta Patxi osatutako bikoteak ere egongo dira Hernanin.

## Gazinema berriz martxan

Domekan, azaroak 9, "El jorobado de Notre Dame" filmea eskainiko dute 16:30etan. Hilaren 14an, eguakitzan, hasiko da Gazinema "Twister" pelikularekin, gaueko hamarretan, zine aretoan. "Espia como puedes" izango da datorren domekan, azaroak 16, eskainiko den pelikula 16:30etan.

## Jubilatuen gaztainerre jana

Datorren martitzenerako, azaroak 11, gaztainerre jana antolatu dute jubilatuek. Jose Mari Ugalde, Jubilatuen Elkarteko lehendakariak adierazi digunez, "urteroko bazkaria eginda daukagu eta orain gaztainerre jana egitea erabaki dugu". Iaz bezala, Orlanen erreko dituzte gaztainak eta ondoren, 19:30etan, Jubilauetan jango dituzte erretako 80 kiloak. Afari-meriendan, ogibitartekoak eta kafea ere eskainiko dira. Beraz, gaztainak gustuko dituzten jubilatuek aukera ederra daukate datorren asteko martitzenean.



**TXOMIN** garajea

Mekanika orokorra

Lizarragako hiribidea, 8 ANTZUOLA  
Tf. 78 70 77

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

*Tomas Gezalaga*

**ANTZUOLA BERGARA**

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

**GAILUR**  
taberna eta  
gozotegia

Buztinzuri, 13 ANTZUOLA Tf. 78 70 32

# Aihertarrak Antzuolan

Datorren domekan, azaroak 16, etorriko dira

**Orain dela hamahiru urtetik, Nafarroa Behereko herri honek harreman berezia dauka Antzuolarekin. Orduko agintari antzuolarrek eta Aiherrako bizilagunek bi herrien artean hartu-emanazate erabaki zuten eta. Urte batean Aiherrara, bestean Antzuolara aritu dira orduantzetik, eta oraingoan aihertarren txanda da.**

izango da, eta izena ematea martitzena baino lehen egin behar da. Arratsaldean, gaztainerre jana egingo da plazan, Gezalaga anai-arrebek alaitua.

13 urte hauetan, bi herrien arteko harremanak estutzen saiatu dira bi herrietakoak eta horregatik, Aiherrako etorreraren aurretik ere beste zenbait ekitaldi izango da. Azaroaren 10etik ha-

sita, astelehena, domekara arte, "Euskararen hatsa" erakusketa egongo da udaletxean. Hego Euskal Herrian lehenengo aldiz erakutsiko den erakusketa honekin, Euskal Herri osoaren egoera azaldu nahi da, 8 ataletan: zenbat euskaldun dauden, zenbatek egiten duten euskaraz, egiten ez dutenek euskarari egiten dioten harrera...

Bestalde, azaroaren 13an, egue-na, "Hizkuntza eta Kultura Ipar Euskal Herrian" hitzaldia izango da, Erramun Bachok, Euskal Kultur Erakundeko lehendakariak, eta Txomin Heguyk eskainita.



Antzuolarrak Aiherran iazko udan. JUAN CRUZ ARGAZKIAK

**G**oizean iritsi, eta ongi etorria emateko, txistulari eta dantzariak aurrakua eskainiko diete herriko plazan. Ondoren, herria hobeto ezagutzeko parada izango dute Aihertarrek; Lapatzako nekazaritza biologikoa, Ibarreko nekazaturismoa... eta gosea egiteko gaztetxeok antolatu dituzten herri probetan hartuko dute parte.

Gaztetxeok esan digutenez, "Kalebarrengo jaxetan egin gñutzen antzerakuak izengo die; burdixana, txingak, sokatiria...". Herri bazkaria jubilatuetan



**JEAN MARI BARBIERE**  
Beltzuntze kultur taldeko kidea

## Zer da Beltzuntze?

Euskal kultura bultzatzen duen Aiherrako taldea. Kantaldiak, gaubelak eta euskal dantzen ikastaroak antolatzen ditugu, besteak beste; orain, pilota ikastaro batekin ari gara.

**Nola ikusten da Aiherran, Antzuola...**

## lara etortzea?

Hasieran jende gutxiago joaten ginen; bazegoen jendea mugaz besterik aldera inoiz joan gabea, eta hartu-eman honi esker ikusi dute ez dagoela espainola erabili beharrik komunikatzeko.

## Zer nolako harremana daukazue antzuolarrekin?



Joaten garenean oso harrera ona izaten dugu, baina harremana ofiziala da. Hemendik herritarrak joaten gara Antzuolara, baina alderantziz ez da

gauza bera gertatzen. Guk harreman pertsonalagoa daukagu; gainera Antzuolako Udala aldatzen den bakoitzean, hasieratik hastea bezala da; lau urtero jende berriarekin hitz egiten dugu eta oso zaila da harremanak estutzea.

## Orduan, beste zerbait egin behar ko da egoera aldatzeko?

Saiatzen gara hori aldatzen. Beltzuntzen biltzen garenek beste zerbait egin behar dela ikusten dugu baina oraingo ez dugu zorterik izan.

"Hemendik herritarrak joaten gara Antzuolara, baina han agintariak ere izaten dira"



Bidea eginez

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

## Tailerra

Uzarraga bidea, 10

Tf. 78 71 78

## Erakusketa

Kalebarren, 1

Tf. 78 71 79

Tf. eta F. 76 64 73

Legedia

## Doaneko justizia

### - Zertan datza doaneko justizia?

- Abokatu eta prokuradorea, hau da, auzi batean beharrezkoak diren baliabideak dohainik eskuratzeko eskubidea litzateke. Bi oinarri dauzka esan daiteke: bate-tik, Konstituzioaren 24. artikulua, non justiziaren aukera denon esku uzten den eta, bestetik, 14. artikulua, non berdintasun irizpidea jasotzen den.

### - Beraz, hiritar guz-tiei dagokien eskubide-a da...

- Bai, baina baldintza batzuk bete behar dira eta nagusia zera da: gutxieneko soldata interprofesionala bi aldiz ez gainditzea. Beraz, gutxi gora-behera 125.000 pezetatik beherako soldata gordina (urteik urtera datzen den kopurua da) dutenek daukate eskubide hori. Dena den, baldintza nagusia hori izan arren, etxe baten jabe izanez gero, adibidez, posible dugu eskubide hori galtzea. Diru kopuru horretaz gain, beste ondasunik ote dugun aztertu behar da.

### - Epaitegian norbaiten kontrako auzia izanez gero, berehala gelditzen da prozedura doaneko justiziaren kasuan?

- Ez, norberak joan beharra dauka epaitegira eta bertan azaldu zein asmo dituen eta zelako eskariak egin dituen.

### - Epaitegitik kanpoko eskubidea da?

- Bai, administrazioaren aurrean aurkeztu be-



**SABIN ZABALETA**

(Abokatu)

harra dago dokumentazio guztia eta paper eta dokumentu dexente dira. Derrigorrezkoen artean errenta aitopenaren agiria, ondasunei buruzko agiria edota gidatze baimena eta trafikoko agiria leudeke. Eta borondatezkoak, adibidez, hauek dira: familia liburua, erren-

ta alokairu kontratua (errentan bizi baldin bagara) edota begi-bistako ondasunei buruz norbera bizi den herriko udalak egindako egiaztagiria. Azken batean adierazi behar dugu gure ondasunak zeintzuk diren eta zein egoeratan bizi garen. Horrela, borondatezko paperak beharrezkoak bihurtzen dira.

### - Non aurkeztu behar dira agiri horiek?

- Donostiako Aholkularitza Zerbitzuaren aurrean, Ilaramendi kaleko lehen zenbakian, baxuan. Telefonoak hauek dira: 45 15 40 eta 46 70 34. Salbuespen modura Bergarako hainbat epaitegitan foiletoak eta orriak aurki ditzakegu, baina beste zenbait epaitegitan ez dute aukera hori ematen. Esan bezala, epaitegiatik kanpoko prozedura bilakatu da. Garai batean epaitegietan egiten ziren pausu guztiak.

### - Zein izango litzateke zure balorazioa?

- Lehen askoz prozedura errezagoa zen hau; orain, epaitegitik kanpo egin beharra dagoenez, oztupo gehiegi daude. Kontrol bat eramatea ondo dago, baina herritarrei hain zaila jartzea... Gipuzkoa osorako bulego bakarra jarri da eta oso egoera larrian gaude. Paperezko eskubide bat bihurtu da.

## “Doaneko justizia eskuratzeko administrazioari gure ondasunen berri eman behar diogu”



Epaitegian doaneko justiziari buruzko informazioa jaso daiteke.

Era guzti-tako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimizen ditugu,



zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko

kamisietan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Irizar, 2  
☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**CAMACHO**  
**Drogeria**  
**Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA  
☎ 76 13 35

## Lan baldintzek hobera ala txarrera egin dute azken urteotan?



**Pedro Vicente**

Nik uste segurtasun laborala oraindik hobetu beharra dagoela. Prebentzioa eta bestelako gaiak lantzeko daude; sindikatuek badute zer egin zentzu horretan.



**Nerea Igartua**

Nik uste dut hobera egin dutela. Beharbada lehen baino istripu gutxiago egoten dira. Industria lanetan ere ibili naiz eta esperientzia ez da txarra izan.



**Vicente Santamaria**

Ez dakit zer esan, baina kontua da gero eta gogorrago lan egiten dela. Segurtasunari dagokionez, gauzak lortzen ari dira, baina istripuak badira oraindik.



**Clara Cabo**

Telebistan eta ematen dituzten datuen arabera, gutxi aurreratu da. Gero eta langile ebentual gehiago dago eta edozein baldintzatan lan egiten dute. Ez dago segurtasunik.



**Diego Rajado**

Oraindik ere istripu txikiak izaten dira hainbat enpresatan eta, beraz, segurtasuna nahiko hobetu beharra dago.



**Elvira Otaño**

Txarrera esaten dute. Badira bizkorrago lan egiteko beharrezko neurriak hartzen ez dituzten langileak ere eta arazo hori bi aldeen errua izan daiteke.

**INFERNUKUA  
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

**GOIERRI** AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu  
Fraiskozuri plaza, 5 Tf. 76 41 50 BERGARA



## Historiaren istorioak

**P**enagarria bada ere, ez da gauza berria Historiaren inguruan mugitzen garenontzat ikustea behin eta berriro nola izan den, eta zoritxarrez, izaten den erabilia "gure" historia beti ideologia baten izenean, edo, hobeto esanda ideologia baten zerbitzuan.

Adin batetik gorakook ez dugu ahazten Frankismo garaian (duela ezer, beraz) ikasten genuen historia. Historia partziala, alderdikoia, non gertaera historiko bakar batzuk agertzen baitziren. Hori zela eta, atzerrian argitaratzen ziren liburuetara jo behar izaten genuen "errealitate historiko" hartatik irtetzeko. Bi mundu ziren, erabat desberdinak.

Irakatsi eta ikasten zen Historia mundu honetatik aldenuz joan zen poliki-poliki. Funtsezko aldaketak eman ziren, besteak beste, eta batzuk bakarrik aipatzearen, bilakaera historikoan nahita ahaztuta zeuden hainbat sektore eta talde sozial hasi ziren azaltzen, esaterako, langileria, estaturik gabeko herriak, gutxiengoak, eta honekin batera, tokian tokiko historia; izan ere, hainbatetan hotzegi iruditzen zaigun historiak jabetzeko zenbat eta gertuagotik hurbildu, hobe dela frogatuta dago.

Autonomiaz osatutako estatu honetan hezkuntzaren erreforma planteatu zenean, beste hainbat eta hainbat asuntoren artean, luze eztabaidatu zen arazoa zera izan zen: ikasgai bakoitzean zeintzuk ziren irakatsi behar ziren gutxieneko ezagutzak eta zeini zegokion zehaztea. Herodesek egin zuena egin zen hemen ere, hau da, pastela baillitza zaitu: zati bat estatuari, beste bat autonomiari eta zati txikiago bat, jakina, ikastetxe bakoitzari.

Azken egunotan ikusi dugu nola Madrilgo gobernuak haunditu nahi duen berari tokatutako portzentaia eta, nola ez, honek gainerakoen haserre eta protestak sortarazi ditu. Zertan geldituko den auzia ez da erreza jakitea, baina niri galdetuz gero, zera esango nieke: errespetatzea Historia eta ez dezatela erabili modu bateko edo beste-ko ideologia aldarrikatzeko; azken finean, historiarekin bakarrik defenditu nahi dena ez da oso defendagarria. Ez da hau Historiaren helburua, gure mundua ulertzeko tresna bat izatea baizik.

**Miguel Angel ALVAREZ**



## Europarrak gara azkenean

**B**adirudi gure agintariei ez zaiela gustatzen herritarrok dibertitzea edo ez behintzat, ohitura den moduan, tabernaz taberna ibiliaz ondo pasatzea.

Martxa honetan pikutara joango da txikitero nekazezinen fama. Ez dakit fama ona edo txarra den eta horixe da gutxienekoa. Baina herri baten ohiturak ez dira dekretu bidez aldatzen, politikoek edozein jarraera hartuta ere.

Ostalaritza mundua eta kontsumitzaileak haserre daude ordutegiak arautzen dituen dekretu horrekin, ixteko ordua asko aurreratzen baitu eta tabernariak grebara iristeko ere gertu daude.

Baina zaraten arazoa ez da bat ere konponduko. Behin eta berriz entzun dugu lokal publikoen insonorizazioa kontrolatu egin behar dela; baldintzak betetzen ez dituztenak zigortu ditzatela baina bakean laga legeak esaten duena betetzen dutenak.

Duela egun gutxi ikusi ahal izan genuen bikote batek Donostiako jatetxe batean ezkontza nola ospatzen zuten eta gorbidatuak ze aurpegikerarekin irten zuten poliziak jatetxetik desalojatu zituenean. Gainditu egin zuten zorigaitzoko ordua, 01:30en muga. Hamaika ikusteko jaiot ginen!

Soziedadeen afalostean musean ari den kuadrilaren partida eteten ere ikusiko ditugu laster, partida interesgarri dagoelako erlojuarekin ahaztuta dabilzanean. Aspalditik ari zaizkigu esaten frantziarren moduan bizi izatera iritsiko garela eta grazia ederra egiten digu horrek gutako askori. Etxeetan bilduko omen gara aurki, lagunekin afaldu eta "edateko", eurek egiten duten moduan. Egingo nuke ohitura berri hori gogaikarriagoa izango litzatekeela bizilagunentzat.

Europar izateko karreran, jatetxeetan erretzea debekatzeko asmoa ere ba omen dago eta badaiteke hala gertatzea.

Martxa honetan, beste planeta bat aurkitu beharko dugu ondo pasatzeko, besterik gabe, gure betiko ohiturekin jarraitu ahal izateko.

**Marta MORAL**

Kafe - Taberna • *BERGARA* • Pentsioa

*Pintxoak, kopak, boiloak...*

Egunero goizeko 7etatik 10ak arte zabalik  
Bidekurutzeta, 34 Tf. 76 47 23



**LASA**  
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

ZUBI-BERRI  
JATETXEA

Lehen platera:  
Entsalada edo  
Fritoak edo  
Nahaskia

Bigarren platera:  
Txuleta edo  
Arraina edo  
Piper beteak

Postrea

Kafea

Etxeko ardoa

2.300 PTA

ASTEBUKAERETARAKO  
MENU BEREZIA

**Koadrilentzat**  
ezin aproposagoa!

San Anton auzoa Tf. 76 30 24

## ■ Urrezko eztaiak

**Peli Etxeberria eta Teresa Luarizaristi** senar-emazte bergarrek euren ezkontzaren **urrezko eztaiak**



ospatu zituzten joan zen urriaren 25ean. Teresa eta Peli 1947ko urriaren 23an ezkondu ziren San Pedron eta lau biloba eman dizkieten bi seme dituzte. Elkarrekin igarotako azken 50 urteak ospatzeko senitartekoekin bildu ziren Teresa eta Peli. Sierbetan meza entzun ondoren, bazkaria egin zuten Zumelaga jatetxean. Zorionak eta eutsi osasunari!!

## ■ Hildakoen eguna

**Luisi Dominguez** enterradoreak esan digunez **beste urte batzuetan baino jende gehiago** hurbildu zen Kanposantura joan zen zapatuan, Domusantu egunean. Goiz eta arratsaldean, ehundaka lagun inguratu ziren joandako senitarteko, lagun edo ezagunak gogoratu eta hilarriak apaintzera. Zapatu eta domekan era guztietako lorez txukunduta ikusi zitezkeen hilarriak.



## ■ Aranzabalen lagunak Zaragozan

**Bergarako Aranzabal Lagunarteko kideek** domekan Zaragozara irteera egin zuten Realak Zaragozaren aurka **La Romaredan** jokaturako partidua ikusteko. Egunean zehar hiria ezagutu eta poteoa egin ondoren, arratsaldean futbol zelaira hurbildu ziren **Kraussen** mutilei harrera egiteko. Telebistan ere ikusi ahal izan

genituen Aranzabal peñakoak jokalariei eta bereziki **Agustin Aranzabali** animoak ematen. Egun osoan Gipuzkoako beste hainbat peñen laguntza izan zuten baina, hala ere, Realak ezin izan zien garaipena eskaini. Aranzabal Lagunartea-koek beste bilera bat egingo dute bihar, zapatua, 13:00ean Kultur Etxean, azaroaren 22an Salamancara egin nahi duten irteera aztertzeko.



# iletxo

ileapaindegi mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktoa, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

**PINTXO eta BOKADILOAK  
SEKULAKO MARTXA!!**


# EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

# IKUSBI

**ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK**

Irala, 5 ☎ 76 53 09



■ **Hizkuntzak ikasten**

Aurreko egunean, Jardunek antolatuta, "Atzerrian hizkuntzak ikasten" izenburuko mahaingurua izan zen Kultur Etxean.

**Iñigo Iñurrategi** izan zen moderatzaile lanetan eta **Kristina Romerok, Naiara Tabuenkak, Iñigo Gallastegik eta Iker Beistegik** beraien esperientzien berri eman zuten. Mahaikideek Frantzia, Ingalaterran, Galesen edota Estatu Batuetan ingelesa eta frantsesa ikasteak suposatzen dituen abantailak, izandako zailtasunak eta tokian tokiko ohiturak ere azertu zituzten. Guztiak bat etorri ziren atzerrian bizitako esperientziaren aberasgarritasuna aipatzerakoan eta mahaingurura hurbildutakoak kanpora joateko pistak jaso ahal izan zituzten. Bestalde, datozen bi ostegunetan, Jardunen eskutik, **sexuari buruzko hitzaldiak** emango ditu Amaia Vazquezek 19:00etan Kultur Etxean.

■ **Antzarra etxera**

**Miguel Angel Diaz** bergararrak argazkian ikusi dezakezuen antzarra ehizatu zuen aurreko egustenean **Gatzagan**. Miguel Angel ia egunero joaten da ehiza denboraldian Gatzagara eta bere esanetan "ez da batere ohizkoa antzar bat harrapatzea. Osteguna egun lainotsua zen eta obi baino baxuago zetozen antzarrak, zarata haundia ateratzen zuten. Nik bat akabatu nuen eta aurreko postuko lagun batek beste antzar bat eraman zuen. Bizitzan behin edo gertatzen da antzar bat harrapatzea". Antzarrak bost kilo inguruko pisua zeukan eta Miguel Angelen etxean Domusantu egunean jan zuten.



**Zertan dihardute ba?**



**Manu Muniategiandikoetxea**

margolariak Futbol Profesionaleko Ligaren Fundazioak antolatutako pintura lehiaketaren lehen saria jaso zuen atzo, eguna, Madrileko Ritz hotelean. Estatu osoko 200 artista izan dira lehian eta Manuk lehen saria eskuratu du "Triptico rojo" izeneko lanagatik. Bere hitzetan, "egurrezko biru modulo, biru ate, dira eta gainean mahai bat margotuta dago. Ateak egurraren gainean marrazturik daude eta pintatuta dagoen bakarra, fondoa, kolore gorrikoa da". Manuk 2 milioi pezetako saria jaso zuen atzo.

**MAHER**  
Biltegiak L.E.  
Oihal etxea  
Bidekurutzeta, 29  
☎ 76 22 90 - 76 26 75

**ZUBIETA**  
elektragintza  
MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK  
Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48

**ARGI PLASTIC**  
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...  
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik  
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

# Miren Zubizarreta

**Hamabost urte besterik ez zituela hasi zen ileapaintzaile lanetan. Gasteizen egin zituen ikasketak eta dagoeneko 8 urte daramatza Disdira ileapaindegian lanean. Martitzenean oporretatik bueltan harrapatu genuen.**

- Zenbat buru apaindu dituzu honez gero?
- Auskalo!! Pilo bat...
- Ilea, luzea ala motza?
- Luzea, baina niri motza hobeto geratzen zait.
- Eta mutiletan?
- Segun...
- Zenbatero mozten duzu ilea?
- Hilero ia.
- Eta nork mozten dizu?
- Hemengo edozeinek.
- Ilargiari kaso egiten diozu ilea mozteko?
- Ez.
- Eta umoreari?
- Bai, normalean umore txarrez nagoenean mozten dut.
- Ondo orraztuta doan pertsona ezagun bat?
- Lydia Bosch.
- Eta nori aldatuko zenioke orrazkera?
- Albako dukesari.
- Ilea zaintzeko gomendio bat?



*“Ile luzea gustatzen zait gehien baina niri motza hobeto geratzen zait. Ilea hilero mozten dut, normalean umore txarrez nagoenean, gainera. Ez naiz batere superstiziosoa”*

- Sarritan moztu eta txanpan eta akondizionadore onak erabili.
- Zein koloretakoa tintatuko zenuke ilea?
- Kobre kolorekoa.
- Ilea paintzaile bat?
- Tony & Gay.
- Pinpirina zara?
- Ez.
- Top-modelik gustokoena?
- Naomi Campbell.
- Gustoko jantzi bat?
- Gona luzeak.
- Erropak eroatera, bakarrik ala lagunduta?
- Bietara.
- Lanbidez aldatzekotan, zer izatea gustatuko litzaizuke?
- Psikologoa. Ilepaindegian ere nahikoa psikologia egiten dugu.
- Txikitako amets bat?
- Ez dut gogoratzen. Orain dauzkadanak bai...
- Zeintzuk?
- Pakea eta Euskal Herria libre izatea.
- Superstiziosoa zara?
- Ez.
- Loterian jokatzeko duzu?
- Ez.
- Etxean animaliarik baduzu?
- Bai, txakur bat, “Haitz”.
- Kolore bat?
- Urdina.
- Gustoko janari bat?
- Piper beteak.
- Zer moduz Tunisian?
- Ondo, baina oso europeizatuta dago.

**SENDABELARRAK ETA DIETETIKA**

**HURBIL**

**DENDA BERRIA  
D. IRALA KALEAN.**

Mediku naturistaren  
kontsulta

Pisuaren kontrola  
Masajista

Eska ezazu eguna eta ordua

D. Irala kalea z/g  
Telefona: 76 30 08



**zumelaga**  
JATETXEA

**ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!**

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21



**gizon emakume**  
Barrenkale, 35 BERGARA

**Usoa Pub**



☎ 76 38 57  
Irala, 1



**ETXEBIZITZA**

**Etxea** salgai Osintxun.  
☎ 76 36 61 (arratsalde).

**Lokala** salgai edo alokairuan Masterrekan. 150 m2.  
☎ 76 11 89.

**Garaje** bikoitza alokairuan Torrekuan. ☎ 76 30 32.

**Pisua** salgai Frontoian. 160 m2. ☎ 76 24 42.

**Pisu** eguzkitsua salgai Matxiategin. ☎ 76 40 99.

**Pisua** alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 63 10 (gauetz).

**Garajea** alokairuan Ibargarain. ☎ 76 33 76.

**Pisua** salgai Aranerrekan. ☎ 76 42 65 (gauetz).

**Lokal komertzialak** alokairuan Zurraderon eta San Pedron. ☎ 76 57 69.

**Logela** bat alokairuan (sukalderako eskubidearekin). ☎ 76 13 46 (Dorleta).

**Lokala** alokairuan Telesforo Aranzadin. ☎ 76 30 08.

**Etxea** salgai Zubiaurren. ☎ 76 64 88 (gauetz).

**Pisua** salgai Antzuolan. ☎ 76 64 65 (12:00-13:30).

**Pisua** salgai Dr. Fleming kalean. ☎ 76 56 99.

**Garaje** bikoitza alokairuan Zurraderon. ☎ 76 57 69.

**Garajea** salgai San Lorentzon. ☎ 76 45 60/51 45.

**DENETARIK**

**Andregai** jantzia saltzen dut. ☎ 76 26 70.

**Hozkailu** berria salgai. Egoera onean. ☎ 76 70 86.

**Urrezko** pultsera (izena eta fetxarekin) aurkitu dut Simon Arrietan. ☎ 76 05 62.

**Lama** Martes Lobsang Ramparen liburu bilduma salgai. Azkarrantz 12, 4.Esk.

**Yorkshire** txakurkumea salgai. ☎ 76 18 96.

**Butanozko** berogailua eta egurrezko kalefazio galdara salgai. ☎ 74 41 28.

**Nikon** FM2 kamara berria salgai. Rowi boltsa haundiarekin. ☎ 76 50 86.

**Suzuki** GSX 600 F motorrira egoera onean salgai. ☎ 76 25 61.

**Renault 4** kotxea salgai. Merkea. ☎ 79 23 69.

**Idazmakina** elektronikoa salgai. ☎ 76 39 14.

**Eskalada** egiteko katuoinak saltzen ditut. ☎ 76 50 22 (asteburuan) edo (948) 27 11 82 (Noelia).

**"Moncayo"** karabana salgai. ☎ 76 38 26.

**LANA**

**OHO** eta ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Gaztetxoei** marrazketa librean laguntzeko prest nago. ☎ 76 34 83.

**Kitarra** klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 46 48.

**Andre** batek zaharrak zaindu edo etxeko garbiketak egiten ditu. ☎ 76 00 90.

**Itzulpenak** (ingelese, gaztelera, euskara) egiteko pertsona behar da. ☎ 79 25 75.

**Haurrak** edo zaharrak zaintzen ditut. ☎ 79 72 92.

**Etxeko** garbiketak egingo nituzke. ☎ 76 13 46 (Dorleta).

**Errepartoak** egiten ditut furgonetan. ☎ 20 39 63.

**Mate**, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 24 31.

**Etxeko** lanetarako neska behar da. ☎ 76 32 06.

**Pintura** eta marrazki klaseak (Arte Ederretan lizentziatua). ☎ 76 03 83.

**Lizentziatu** batek mate, fisika eta kimika klaseak ematen ditu. ☎ 76 70 40.

**Neska** batek astebukaretan helduak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 56 66.

**Majisteritza** ikasle batek OHoko klaseak ematen ditu. ☎ 76 47 30.

**Etxeko** lanak egingo nituzke. ☎ 76 42 63.

**Mate**, fisika eta informatika klaseak. ☎ 76 46 03.

**OHO** eta BBB Klaseak ematen dira. ☎ 76 33 26.

**Bergara U Pair**

IRLANDA, ESKOZIA,  
INGALATERRA, FRANTZIA.  
AU PAIR, TABERNARI, DENDARI... ETA  
BESTE MILA LANPOSTU.

Tf. 76 26 06

**Azaroaren 3tik aurrera, astelehena:**  
**EGUNEKO MENUA + OGIA, POSTREA ETA ARDOA**

**950 PTA.**

**PISZINETAKO**

**TABERNA**

BERGARA TF. 76 53 55

Industria  
homikuntzak



Industriaren  
alde

**MEMESA S.L.**

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxes: 79 47 89  
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxes: 77 13 08



☎ 76 20 61

KAFETEGIA



GOSARIAK ETA  
AUKERAKO PINTXOAK

Goizeko 7:30etan irekitzen dugu

Zurradero, 4 BERGARA

# Berrigara Gida 98



**AZKEN EGUNAK!** Berrigara Gida 98, Bergara eta Antzuolako gida komertziala prestazen dihardugu. **Aitziber Aretxaga** (argazkian) ari da komertzial lanetan, dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasotzen.

Bestalde, ohiko telefonoez gain, herriko partikularren telefonoak ere jasoko ditu Gabonetan kaleratuko dugun Berrigara Gida 98 liburutxoak. Beraz, intereseko telefonoak, komertzialenak eta partikularrenak jasoko ditugu, hau da, **Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

Iazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzeko eskatuko genizuke (76 03 97).  
**Azkar ibili, azken egunak baitira.**

**BERRIGARA**

## Lehen maila

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. A ZE FLAXA ETXAGI	14	7	22	14
2. MONGATXURRAK	13	6	21	10
3. PAGOMENDI	12	7	39	18
4. BAR CANALEJAS	12	6	23	22
5. AZPEITXI JATETXEA	11	7	25	21
6. ETXAGI	9	7	23	20
7. ERROTAGAIN	7	4	12	9
8. AGINASPI	6	7	19	34
9. BILDURBAREK OPEL/LAM	6	6	15	21
10. JAUJA OH ZEREZOS	6*	6	23	33
11. ARLOTEAK/OILAGORRA	4	5	5	11
12. ORTZI	1	6	7	21

## A multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. AGIRREBEÑA JATETXEA	18	7	38	15
2. EZINLEIKE	15	7	58	25
3. MANITOU	13*	7	38	7
4. SHAKTALE	13	7	33	8
5. MOSKIS	13	7	32	21
6. MRW	13	7	28	20
7. ALDOKA MALDOKA	11	7	18	24
8. GANBARA ARI ARI	7*	7	18	20
9. INDARGORRI	5	7	15	25
10. POLIDEPORTIVO TABERNA	3	7	17	45
11. IGANDEKOAK	0*	7	18	39
12. KAIXO	0	7	9	73

## B multzoa


TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. ARTUSAMAK	15	6	37	15
2. AMOZKIBAR	15	6	21	14
3. SLO	15	6	21	14
4. AUTOBEREZI	13	7	33	28
5. BAYER	12	6	19	18
6. JAKINA PT	9	7	28	23
7. UVE BIKOITZA	6	6	14	21
8. USOA	6	6	20	28
9. TXIPIRON	4	7	10	27
10. ERDIBITERAK	4	6	17	23
11. AMILOTX	-2*	5	5	14

## C multzoa

TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. GUADALEST	18	7	29	17
2. LA JUVE	16	7	25	10
3. FAC	15	6	37	12
4. UFALA	12	6	19	18
5. ERI SIRIMIRI	10	6	18	17
6. MATXAKATEGI	9	6	15	22
7. BAR GANBARA	7	6	27	19
8. ETENGABE	4	6	6	16
9. LA PEÑA DML	3*	7	16	26
10. KOMANDO PIPERRAK	3	6	14	24
11. PATATUS	0*	7	16	41

\* KARNETAK EZ ENTREGATZEARREN PUNTUAK KENDU ZAIZKIO.

# Jokoz kanpo



## Ander Beristain

### EZINLEIKE

### ZELA DOA TXAPELKETA?

Ondo, lehenengo postuetan sailkatuta gaude; gustora gabiltza.

### JOKALARI BETERANOS OSATUTAKO TALDEA ZARETE, EZTA?

Bai, gainera aurten fitxaketa berriak egin ditugu, "Txitxo", Miguel, Iñaki eta Eguren fitxatu ditugu eta igartzen da.

### GAZTEEK EZ DUTE ZUEN KONTRA IRABAZTEKO ADORERIK?

Bai, noizean behin bai. Badakizu korrika asko egiten dute eta...

### ZUEN MULTZOKO TALDERIK ONENA?

Manitou.

### IGOTZEKO ASMORIK?

Bai, baina adituek esaten duten moduan: "partiduz partidu" joan behar dugu.

### ATEZAIN ON BATEK ZER EDUKI BEHAR DU?

Futbitoan kolokazioa eta erreflejoak ezinbestekoak dira.

### ATEZAINAK AREATIK EZ IRTETEAREN ALDEKOA ALA AURKAKOA ZARA?

Arau hori ez zait gustatzen, atezainak ere jokoan sartu behar du eta libero lanak egin ditzake.

### ARBITRAIEKIN GUSTORA?

Nahiko ondo.

### ASKO PROTESTATZEN DUZU?

Hori esaten dute, baina partidua bukatutakoan gutzia ahazten zait.

### LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Urzaiz.

## EMAITZAK

PAGOMENDI-JAUJA OH ZEREZOS	16-4
ETXAGI-BAR CANALEJAS	6-1
AGINASPI-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-2
A ZE FLAXA ETXAGI-AZPEITXI JATETXEA	2-1
IGANDEKOAK-KAIXO	12-2
SHAKTALE-INDARGORRI	2-2
MOSKIS-POLIDEPORTIVO TABERNA	7-4
ALDOKA MALDOKA-AGIRREBEÑA JATETXEA	2-12
MRW-GANBARA ARI ARI	3-3
MANITOU-EZINLEIKE	8-3
BAYER-TXIPIRON	4-0
AMOZKIBAR-USOA	3-0
JAKINA PT-ARTUSAMAK	0-4
AUTOBEREZI-ERDIBITERAK	5-4
ETENGABE-LA PEÑA DML	1-3
FAC-PATATUS	8-2
MATXAKATEGI-KOMANDO PIPERRAK	3-2
GUADALEST-UFALA	7-0
LA JUVE-BAR GANBARA	3-3

## PARTIDUAK

### Zapatuan barruan

09:00: AMILOTX-UVE BIKOITZA • AUTOBEREZI

10:00: SLO-AUTOBEREZI • ARTUSAMAK

11:00: ARTUSAMAK-AMOZKIBAR • SLO

### Zapatuan kanpoan

16:00: AGIRREBEÑA JATETXEA-MOSKIS • AGINASPI

17:00: AZPEITXI JATETXEA-AGINASPI • IGANDEKOAK

18:00: INDARGORRI-IGANDEKOAK • AZPEITXI JATETXEA

### Domekan barruan

09:30: POLIDEPORTIVO TABERNA-SHAKTALE • USOA

10:30: USOA-BAYER • BILDURBAREK OPEL/LAM

11:30: BILDURBAREK OPEL/LAM-ERROTAGAIN • ERI

12:30: ERI-LA JUVE • ERROTAGAIN

16:00: PATATUS-ETENGABE • FAC

17:00: KOMANDO PIPERRAK-FAC • UFALA

18:00: UFALA-MATXAKATEGI • GUADALEST

19:00: BAR GANBARA-GUADALEST • KAIXO

20:00: KAIXO-MANITOU • BAR GANBARA

### Domekan kanpoan

11:30: GANBARA ARI ARI-ALDOKA • JAUJA OH ZEREZOS

12:30: JAUJA OH ZEREZOS-ARLOTEAK • ALDOKA MALDOKA

16:00: ORTZI-ETXAGI • BAR CANALEJAS

17:00: BAR CANALEJAS-PAGOMENDI • ETXAGI

## OHARRA

ANTOLAKETA BATZORDEAK ERABAKI DU AMOZKIBAR-USOA PARTIDUA AMOZKIBAR TALDEAREN ALDE 3-0 LAGATZEA; BESTALDE, USOA TALDEA HURRENGOAN TXAPELKETATIK BOTAKO DUELA JAKINARAZI DU.

## TXINPARTAK

**Eski bonoak  
Pol-Polen  
eskuragai**

Pol-Pol Mendizale Taldeak jakinarazi digu elkarteko bulegoa zabalik egoten dela astelehenerik eguenera arratsaldeko zazpietatik zortzi eta erdietara 1997-98 eski-denboraldiko bonoak ateratzeko edota prezioen berri jakiteko.

**Kadete mailako  
futbol taldea  
lider**

BKEko 2. mailako kadeteak lider daude jokatu dituzten 6 partiduak irabazi ondoren. Aranbururen mutilek joan zen urtean Gipuzkoako infantilen txapelketa irabazi zuten eta aurten maila nagusiagoan jokatu arren oraindik ez dute partidurik galdu. Domekan goizeko 10:30etan jokatu dute Urolaren aurka.

# Gaztetxoentzako igeriketa probak bihar Agorrosinen

**Bihar**, zapatua, goizeko 10:00etatik aurrera Deba bailarako 8 urtetik 11 urtera bitarteko igerilari-entzako probak jokatuko dira Agorrosingo igerilekuan. Probak Eskola Kirola programaren barruan daude kokatuta eta bertan 28 bergarrek hartuko dute parte.

Hilean behin Deba eta Urola bailarako herrietan probak izaten dituzte igerilari gazteek eta herri bakoitzean estilo bakarra lantzen dute. 1986an jaiotakoek 400 metro krol egin beharko dituzte; 1987an jaiotakoek, ostera, 200 metro eta 1988-89koek, 100 metro.

Astean zehar gogor aritu dira entrenatzen igerilari bergararrak eta Leire Zeziaga entrenatzaileak adierazi digunez, *"biharko probara haur piloia etorriko da eta ibardunaldi politikak izango dira. Datorren hilean beste herri batean izango dugu*



Bergara Igeri Elkarteko igerilariak.

*proba eta beste estilo bateko saioak jokatuko dira".*

Haurrak entrenatzeaz gain, Zeziagak hainbat urte daramatza Bergara Igeri Elkarteko kirolariak entrenatzen eta aurtengo denboraldia hasi dutela esan digu. *"Dagoeneko egin dugu lehen proba eta emaitza nahiko onak lortu ditugu. Halere, oraingo probak ez dira baina garrantzitsuak eta burrungo abenduan jo-*

*katuko diren Gipuzkoako txapelketarako entrenamendu onak dira".*

Azkenengo urteetan igerilari kopuru aldetik beherantz egin du elkartek; baina aurten joera hori aldatu egin da eta adin ezberdineko 52 igerilari dituzte Bergara Igeri Elkartean. *"Pozik gaude igerilari berri asko etorri direlako eta beste urte batzuetakoek jarraitzen dutelako"* adierazi digu Zeziagak.

## Futbitoko prestatzaile ikastaroa

Gipuzkoako Areto Futboleko Federazioak eta Deba Garaiko Mankomunitateko kirol zerbitzuek areto futboleko lehen mailako prestatzaile ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa abenduaren 3an hasiko da 19:00etan Oñatiko Zubikoa kiroldegian. Ikastaroaren iraupena 60 ordukoa da eta zapatuetan goizeko bederatzietatik ordu bietara eta eguastenetan iluntzeko zazpietatik bederatzietara izango da. Parte hartzeko 16 urte beteta izatea beharrezkoa da. Deba Garaiko kirol zerbitzuetako bazkideek 12.000 PTA ordaindu beharko dute eta gainontzekoek 15.000 PTA. Izena emateko epea azaroaren 28an bukatzen da. Bestalde, Udal Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen binakako pala eta eskuzko pilota txapelketetan izena emateko epea hurrengo eguastenean bukatuko da. Pala txapelketa Osintxuko pilotalekuan jokatuko da zapatu arratsaldetan eta eskuzkoa, berriz, Zabalotegin zapatu goizetan.



**KARTELDEGIA**

**FUTBOLA**

◆ **Bergara-Urnieta**

Lehen mailako jubenilak.

Zapatua. 17:15

Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Arrasate**

Bigarren mailako jubenilak.

Zapatua. 15:30.

Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Urola**

Bigarren mailako kadeteak.

Domeka. 10:30.

Ipintza futbol zelaia.

◆ **Bergara-Ordizia**

Ohorezko infantilak.

Domeka. 12:00.

Ipintza futbol zelaia.

**ESKUBALOIA**

◆ **Bergara-Urola**

Kadete neskak.

Zapatua. 16:30.

Labegaraieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Arrate**

Senior mutilak.

Zapatua. 18:00.

Labegaraieta kiroldegia.

**SASKIBALOIA**

◆ **Bergara-Aloña Mendi**

Kadete mutilak.

Zapatua. 12:15.

Mariaren Lagundia.

**FUTBITOA**

◆ **Lagunak-SRD Antxeta**

Eguakitza. 22:15.

Labegaraietako kiroldegia.

# Andoni Larrañaga

## Gipuzkoako Mendi Federazioko presidentea

**Andoni Larrañaga bergarra izango da datozen hiru urteetan Gipuzkoako Mendi Federazioko presidentea. Larrañagarekin batera beste hiru bergarar izango dira Gipuzkoako Mendi Federakuntzaren zuzendaritzan.**

**- Zela hartu duzue zuzendaritza hartzeko erabakia?**

- Gipuzkoako federakuntza urtebete eta piku zuzendaritza barik ibili da eta denbora horretan Deba bailarako elkarteak bileretan ibili gara. Federakuntza desagertzeaz zegoen eta azkenean Deba Garaiko elkarteaz osatutako taldeak hartu dugu federazioaren zuzendaritza.

**- Zurekin batera beste hiru bergarar daude, ezta?**

- Bai, Ion Berasategi antolaketaz arduratuko da, Felipe Uriarte lehen-dakari ordea izango da eta Jesus Alvarez barne harremanez arduratuko da. Zuzendaritza Deba bailarako lagunez osatuta dago.

**- Zer lehentasun daukazue?**

- Elgoibarren izango den Euskadiko Federazioaren batzarra prestatzea da lehentasunetariko bat. Bertan elkartei informazioa emango diegu. Lehengo zuzendaritzakoekin ere izango gara egoera zela dagoen hobeto jakiteko eta, ondoren, urte osorako ekintzen programa osatu beharko dugu.

**- Asmo zehatzik baduzue?**

- Oraindik, ez. Baina hor arlo asko daude antolatzeko: eskolarren irteerak, aterpeak, senderismoa, ingurugiroa, ikastaroak...

**- Zenbat federatu daude Gipuzkoan?**


- 10.000 federatu inguru ditugu. Bizkaia eta Araba, biak batuta, baino federatu gehiago daukagu.

**- Behartuta hartu behar izan duzue kargua?**

- Behartu ez gaitu inork egin, baina sartu gara ez zegoelako beste inor ardura hartzeko prest eta federazioa desagertzeko zorian zegoelako.

**- Pol-Poleko presidente 5 urtean izan zara. Zela ikusten duzu mendizaletasuna Bergaran?**

- Bergaran mendizale-tasanak ez dauka ardurarik. Ez Bergaran, ezta Deba bailaran ere. Analisia egiterakoan garbi ikusten genuen Gipuzkoako Federazioan hemengo klubek egiten zutela lan. Gipuzkoako Federazioa desagertuko balitz, bailarako klubek berdin jarraituko genuke. Diputazioko dirulaguntzak galdu egingo genituzke eta sail batzuek: eskola kirola, espedizioak... igarri egingo lukete.



Larrañaga hurrengo 3 urtetan izango da presidente.

## “Mendizaletasuna Bergaran oso egoera onean dago”



Argazkia: Imanol Iriagarai

## *Klasea hasteko prest*

**A**zkenengo asteetan garai batean Imanol Iriagarai institutuan ateratako argazkiak kaleratzen ari gara. Erretratu artxibo interesgarria duda barik, garai bateko jazkera edota orrazkerari buruzko informazioa ematen digulako, besteak beste.

Oraingoan, 1981-82 ikasturteko neska-mutilak agertzen dira, orduan BBBko bigarren mailan edo zebiltzanak. Hauek dira euren izenak ezkerretik hasita:

**Goiko lerroan:** Elias Aranburu, Xabier Ugalde, Dani Laskurain, Imanol Cerdeira eta Amaia Agirre.

**Behean:** Marijo Izuzkiza, Richar Carmona, Karmentxu Otamendi, Marisol Sanchez eta Clara Cabo.



### MARIA LUISA IRAZABALBEITIAren aldeko urte meza

Maria Luisa Irazabalbeitia Arriolaren aldeko urte meza izango da domekan, hilak 9, goizeko 11:30etan Santa Marinaran.

Bere alargunak, Roman Zabaleta Olabarria, eta seme-alabek, Sabin eta Amaia, aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkiete elizkizunetara joango diren guztiei.

Bergaran, 1997ko azaroaren 7an.



**Sarrera klasera**




**Beroketa**



**Luzatze-ariketak**



**Katak**



**Etorkizuneko txapeldunak**

# Giartzu Gimnasioa


5 urtetik aurrerakoentzat.

Astelehen, asteazken eta ostiraletan,

18:00etatik 19:00etara.

Tf. 76 35 71

REGIZU KARATE FEDERATUA!



**Agurra**



**Luis**, entrenatzailea  
gerriko beltza, 2. DANA.  
VS 176 erregistro-zenbakia

**Linaki**, estatu mailako  
entrenatzailea, 2. DANA.  
Nazio mailako gradu-epailea.  
VS 82 erregistro-zenbakia

Abia zaitez dimentsio  
berri baten bila

**Proba ezazu konpromezu barik!**

Megane Scenic ba  
probatzen badu,  
Scalextric baten zozketan  
parte hartuko duzu.  
Zatoz azaroaren 31  
baino lehen!

**Azaroan Bergaran irekiko dugu!**



**RENAULT**

**MECA**

San Andres auzoa • Tf. 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE eta Amillaga 5 • Tf. 76 40 68 BERGARA

